

Uda, festak eta parranda. Eta gero zer?

Kaixo. Irakurtzen hastera zoazen ondoko letra samalda, ez da iritzi artikulu bat, zurekin batera egin nahi dugun hausnarketa bat baizik. Bai, zu, euskaldun gaztea. Gazte azkar eta ireki batekin topo egin nahi genuke. Horrelakoa ez bazara irakurtzen jarraitzeak ez du merezi, zurekin hausnartzea agian ezinezkoa bihurtu daitekeelako.

Manera onak dituenak aldeaz aurretik bere burua aurkeztu behar duelako, hona hemen gurea. Hausnarketa honen atzetik gabiltzanak herri erakunde bateko militanteak gara, Askagintzakoak, eta Euskal Herrian gabiltza, herri gutxi batzuetan, droga-mendekotasunen fenomeno normalizatu nahian. Gure inguruan nagusia den debekuaren bidea salatzen dugu, drogaren onurak bakarrik aldarrikatzen dituztenak ere duda-mudan jartzen ditugu eta gure aldetik droga gaiari arrazionaltasun dosi bat ematen saiatzen gara. Zure neuronak oraindik lanean hasteko badaude, jakin ezazu gu ez gaudela drogen aurka, baina drogak kontsumitzeko modu batzuk sortzen dituzten mendekotasunen aurka berriz bai. Orain arteko esandakoak publizitatearen tarte zirudienez, honekin amaitu nahi dugu. Ez bagaituzu ezagutzen, teknologia berriei ez izan beldur eta sar zaitez www.askagintza.com-era, han gure berri gehiago izanen duzu.

Hausnarketa honen gaia argia da: festak bere horretan eta batez ere bertan egiten ditugun droga kontsumo mota ezberdinak. Gaia ez duzula gustuko? Erraza duzu, bertan utzi, beste albiste batera joan eta "alaittua, kementsua eta borrokalaria" izateari eutsi.

Esaten eta egiten denaren artean ez genuke kontraesanetan erori nahi. Erraza eta politikoki zuzena suertatu daiteke hitzetik hortzera subiranotasuna eta autodeterminazioa aldarrikatzea, baina zailagoa da gure eguneroko jardueretan denari men ez egitea eta menpeko ez azaltzea.

Aja! Oraindik hor jarraitzen duzu. Mila esker. FESTA zoragarria da. Gauza atseginak, dibertigarriak, ludikoak... gustatzen zaizkigu. Eguneroko martxa eta ordutegia puskatzea eta estresa sortzen duten erritmoak hankaz gora jartzea gustuko dugu, osasuntsua delako.

Baina guk ere, zure antzera, mania batzuk ere baditugu. Agian zureak eta gureak antzekoak dira! Oraindik orain gauza gutxi ditugu ospatzeko, agian konstituzioa, baina zeinena?, Eta natura, zer? Baina hori non dago?, Eta inguruko baldintzak, zer? Prekarietatean murgildurik gaude eta!, Errepresioa? Uffffff, kontuz horrekin mina hartzen dugu eta!, Kontsumismoa? Baina zer... dena politegia, premiazkoa, eskuragarriegia eta merkeegia-garestiegia delako?... Ospatzeko gutxi izan arren gure herriko festaz gozatzea gustukoa dugu, baita gure hizkuntza errebindikatzen duten jaietan murgiltzea ere, gustura sentitzen gara gure eskubide kolektiboak eta identitatea edota herri baten partaide izatearen sentimendua pizteko baliagarriak diren kirol arrakastak ospatzen baita ere, zergatik ez!

Jai-giro horiek guztiak denok ez ditugula modu berdinean bizitzen begi bistakoa da. Agian ez zara sekula pentsatzen jarri, baina behin baino gehiagotan eguneroko martxa puskatzeko jarraitzen dugun bide horretan, nahigabe edo nahita egunerokotasunean edo betikoan erortzen gara. Beste batzuetan "kontent" egotea bilatzen dugu, baina "penak itto" besterik ez ditugu egiten. Askotan ezberdin bizi nahi dugu, baina kristo guztiak egiten duena egiten dugu, artaldean murgilduz. Integratuak sentitzeko desio horretan sarritan nortasuna galdu besterik ez dugu egiten. Errealitatea aldatzea desiratzen dugu, baina horretarako ematen dugun pausu bakarra gure burua "ke zuriz egindako burbuila" batean sartzea izaten da. "Martxa" izateko "arrastoak" behar ditugu. Espazio "alternatiboak" antolatzen gabilta, baina txosnaz eta barrakaz betetzen ditugu. Hemendik aurrera eten-puntuak (...) jartzea zen gure asmoa, baina agian irakurle azkar honek ezagunak izango ditu antzeko beste hainbat eta hainbat errealitate. Txanda pasa!

Izorratzaileen jokoa dirudi honek. Badakigu, ihes egiteko, ahazteko, kontsumitzeko, izena eta izana lortzeko... premia guztiona dela, baina askotan lorpen horien atzetik gabiltzala sormena galtzen dugu, narkotrafiko sareen menpe bizitzen gara edo aisiaren industriak alaitzen du gure bizitza. Izorratu egiten du ezta!...

Barne-muinetaraino sarturik daukagun "aste ingelesaren" kontra gaude. Asteko antolaketa honek lan orduak edota ikastorduak hala moduz eta ilusio gabe jasatea eramaten du eta asteburua berriz "deskonektatzeko" eta "kontrola galtzeko" erabiltzea sortzen du. Kontsumismoaren izenean (etxea, kotxea, mugikorra, arropa, udako kolorea, bikini-operazioa...) hainbat eta hainbat gauza justifikatzen ditugu, hala nola ordu estrak sartzea, banku maileguak eskatzea, liburuak garestiegiak direlako ez erostea eta abar luze bat (hemen ere baduzu aukera gehiago eransteko, zure txanda!). Denok gaude honen aurka, baina bertan sarturik gaude, eta hau guztia zertarako? Harrapatzen dugun lehen zubian ziztu bizian atera eta "disfrutatzeke", auto-ilaran estututa edo antolatutako aisialdi guneetan pilatuta gauden bitartean.

Gure kulturaren berezko ezaugarriak kontutan hartzen ez dituzten Festen kontra gaude. Globalizazio homogeneizatzaiaren modak gurea zen hori ordezkatu egin du, horretarako nahikoak izan direlarik beren komunikabideak eta aisiaren industria.

Eta zu, honen kontra al zaude? Barkatu, barkatu, pentsatzen zaude eta...

Festa sortzaileak, dibertigarriak, ludikoak, ez konpetitiboak, ez kontsumistak eta parte hartzaileak izatea da gure ametsa. Festa horietan egin daitezkeen droga kontsumoak, sexu hartu emanak eta gozamenak inor ez erasotzea nahiko genuke. Etxera iristen zaizkigun festa programa horiek "nonbait" diseinatuak ez izatea nahi genuke, garai bateko programen organizazioan eta garapenean ematen zen parte hartzea berreskuratzen joan beharko ginateke.

Honaino iritsi zaren arren zure lanak bukatu direnik ez pentsa. Oraindik baduzu zer esana eta zer egina. Hartu zure ondokoak eta hausnartzen jarraitu. Festekin eta bizitzarekin gozatzen segi. Osasuna eta askatasuna.

Txus Congil (Askagintza)
Hernanin 2005ko Udaran